

Donostia, 2011ko irailaren 6a

Eguneko gaiak hauek dira:

#### **1.- Hezkuntza Sailaren 2011ko diru laguntzen justifikazioa.**

Irailaren 12an argitaratuko dute IGEei 2011rako banatuko zaizkien diru laguntzen gaineko ebazpena EHAAn. Indarrean dagoen araudiaren arabera, jasotako diru laguntzak justifikatzeko 15 eguneko epea dago, argitalpena EHAAn agertu eta hurrengo egunetik hasita. Horrenbestez, 2011ko irailaren 13tik 27ra bitarteko epean aurkeztu beharko dira justifikazioak; horretarako, honekin batera bidaltzen dizuegun III. ERANSKINA bete behar da, eta zehaztu egin behar dira 2011ko urtarriletik irailera bitartean egindako gastuak. Eranskinarekin batera, egindako gastua egiazatzeko jatorrizko fakturak aurkeztu behar dira.

IGEak eskuratutako laguntzaren zenbateko osoa irailean justifikatzeko adina fakturarik eduki ezean, beste dokumentu bat ere bete behar da, "erantzukizun adierazpena" deritzona (dokumentu hori ere honekin batera doa); dokumentu hori beteta, IGEak konpromisoa hartzen du falta zaizkion fakturak 2012 urtarriaren 31 baino lehenago aurkezteko, betiere 2011ko abenduaren 31ra bitartean ordaindutako gastuei dagozki fakturak, eta horrela justifikatu ahal izango du jasotako diru laguntzaren zenbateko osoa. Adierazpen hori III. eranskinarekin batera aurkeztu behar da.

Ohi bezala, justifikazioa aurkezteko izapideak BAIKARAren bidez egitea gomendatzen dizuegu, aurkezpena egitean suerta litezkeen akatsak edo gabeziak errazago konpondu ahal izateko.

Eskualdeko bileran gai honi buruzko informazio gehiago emango dugu, eta argitu beharreko zalantzak argituko ditugu.

Bestalde, dokumentazioa dagoeneko prest duten IGEek bilerara joaten den BAIKARAren ordezkariari eman diezaiokete, bileran bertan.

**Garrantzisko oharra:** Oro har, dokumentazioa aurkeztean suertatzen diren gorabehera gehienetan arrazoia hau izaten da: III. eranskinean IGEaren zigilua edo ordezkariaren sinadura ez agertzea. Beraz, arreta berezia eskatzen dizuegu, dokumentu hori sinatu eta zigilatzeko.

#### **2.- BAIKARA FEDERAZIOAren zerbitzuak gogoraraztea.**

Puntu honetan, BAIKARAk bere IGE bazkideei eskaintzen dizkien zerbitzuak gogora ekarriko ditugu. Postaz igorritako dokumentazioan zerbitzuen laburpen bat agertzen da; informazio hori webgunetik ere deskarga dezakezue ([www.baikara.org](http://www.baikara.org))

#### **3.- 2011-2012 ikasturterako lan plangintza:**

- **BAIKARAren Batzar Orokorra:** Beasainen egingo da, 2011ko azaroaren 5ean.
- **Euskal Eskola Publikoaren Jaia:** Jaiaren 21. edizioa 2012ko ekainaren 10ean izango da, Zarautzen. Eskola Txikien jaia, berriz, ekainaren 3an egingo da, Larraulen.
- **IGEak informatizatzea:** Aurreko ikasturteko azken eskualde bileran gai honi buruz emandako informazioa gogora ekarriko dugu. Hain zuzen ere, aukera eman zitzaien IGEei kudeaketarako programa informatiko bat erabiltzeko eta IGEaren webgunea sortzeko.
- **Ikasturte hasierako intereseko beste gai batzuk.**

#### **4.- IGEen topaketa, IGEen Jardunbide Egokien I. Lehiaketan saritutako esperientziak aurkezteko:**

Jardunaldia 2011ko azaroaren 12an egingo da, seguru asko, Donostiako Miramar Jauregian, goizean. Ekitaldi horretan, lehen lehiaketan saria eskuratu zuten proiektuak aurkeztuko dira. Gogorarazi nahi dugu Aretxabaletako Kurtzebarri BHIko "BATERA" IGEak aurkeztutako proiektua izan zela irabazlea, eta hirugarren saria Olaberriko Olaberria LHIko "KUTTUN ZEBA" elkartea eskuratu zuela. Era berean, aipamena jaso zuten Debako Luzaro LHI ikastetxeko "ZUBI" eta Irungo Dumboa LHIko "OXINBIRIBIL" IGEek.

Jardunaldi horren osagarri modura, familiarekin eta eskolarekin zerikusia duten hezkuntza alderdiei buruzko hitzaldi bat antolatuko da.

#### **5.- Galde-eskeak**

Los asuntos a tratar serán los siguientes:

### **1.- Justificación subvenciones del Dpto. de Educación año 2011.**

Con fecha 12 de septiembre se va a publicar en el BOPV la resolución de las ayudas concedidas a las AMPAS para el año 2011. De acuerdo con la normativa actual la justificación de la subvención concedida hay que presentarla en el plazo de 15 días desde el día siguiente a su publicación en el BOPV. Por ello, esta justificación hay que presentarla entre los días 13 y 27 de septiembre de 2011, rellenando el documento denominado ANEXO III (que os adjuntamos), y en el que hay que detallar los gastos realizados entre enero y septiembre de 2011. Junto a este anexo hay que presentar las facturas originales que justifiquen el gasto realizado.

En el caso de que la AMPA no disponga, a fecha de septiembre, de facturas suficientes para justificar el total de la ayuda concedida, hay que llenar un documento, denominado "declaración responsable" (que también os adjuntamos) en el que la AMPA se compromete a presentar antes del 31 de enero de 2012 las facturas, que con fecha anterior al 31 de diciembre de 2011, haya podido pagar, y poder justificar con ello el importe de la subvención recibida. Esta declaración hay que presentarla ahora junto al Anexo III.

Como es habitual os recomendamos que la tramitación de esta justificación la realicéis a través de BAIKARA, para así poder subsanar las posibles omisiones o errores que se pueden cometer al hacer la presentación.

En esta reunión de zona se dará más información y se procederá a aclarar las posibles dudas que puedan surgir.

Asimismo, aquellas AMPAS que tuviesen cumplimentada la documentación podrán entregar en mano la misma al representante de BAIKARA que acuda a la reunión.

**Importante:** normalmente el mayor número de incidencias que se producen al tramitar la documentación está motivado por no estampar el sello de la AMPA o la firma del representante en el anexo III. Por ello os pedimos prestéis atención y no os olvidéis de firmar y poner el sello en el documento.

### **2.- Recordatorio servicios de BAIKARA FEDERAZIOA.**

En este punto procederemos a recordar los servicios que BAIKARA ofrece a las AMPAS federadas. Entre la documentación enviada por correo os remitimos un resumen de los servicios prestados, que también podéis descargarlos de la página web ([www.baikara.org](http://www.baikara.org))

### **3.- Plan de trabajo curso 2011-2012:**

- **Asamblea General de BAIKARA:** se celebrará el día 5 de noviembre de 2011 en Beasain.
- **Fiesta Escuela Pública Vasca:** la 21ª edición de la fiesta se celebrará el día 10 de junio de 2012 en Zarautz. La de Eskola Txikiak será el día 3 de junio en Larraul.
- **Informatización AMPAS:** se recordará la información transmitida en la última reunión zonal del curso pasado, y en la que se ofrecía a las AMPAS la posibilidad de utilizar un programa informático de gestión y elaborar una página web de la AMPA.
- **Otros temas de interés en este comienzo de curso.**

**4.- Jornada de encuentro con AMPAS para presentar las experiencias premiadas en el "I. Concurso de Buenas Prácticas de las AMPAS", organizado por EHIGE:** esta jornada se celebrará probablemente el día 12 de noviembre de 2011 en el Palacio Miramar de Donostia y se desarrollará a lo largo de la mañana. En la jornada se presentarán los proyectos que resultaron ganadores en este Primer Concurso. Recordamos que el proyecto ganador fue el presentado por la AMPA "BATERA" del centro Kurtzebarri BHI de Aretxabaleta, recibiendo el tercer premio el proyecto presentado por la AMPA "KUTTUN ZEBA" del centro Olaberria LHI de Olaberria. Asimismo recibieron menciones los proyectos presentados por las AMPAS "ZUBI" del centro Luzaro LHI de Deba, y la AMPA "OXINBIRIBIL" del centro Dumboa LHI de Irún.

Esta jornada se completará con una conferencia sobre cuestiones educativas relacionadas con la familia y la escuela.

### **5.- Ruegos y preguntas**